



# Bizkaia

*Bizkaiko sagardoaren sona eta ospea epelagoa bada ere, badu tradiziozkoak, badu berezitasunik eta, batik bat, badu kalitate nabikorik sagardoazaleak erakarri eta asetzeko. Egia da «Sagardotegi» izenarekin hainbat jatetxe eta antzeko zabaldu dela azken urteotan Bizkaian eta horrek desitxuratu ere egin duela auzia.*

*Baina ez da egia txikiagoa bertan diren sagardotegiekin, Gipuzkoan direnak baino gutxiago izanik ere, badutela zer eskaini.*

## BERTOKO PRODUKTUA ESKAINTZEN DUTE BIZKAIKO SAGARDOTEGIEK

ANIEL ORDÓÑEZ

**U**RTERO BEZALA, AURTEN ERE, HILAREN 20RAKO, SAN SEBASTIAN BEZPERARAKO, PREST IZANGO DITUZTE KUPELAK. Azpimarratu beharra dago, dena den, sagardoaren eta sagardotegien tenporadak ez datozela beti bat. Izan ere, eguraldiaren araberakoa izan ohi da sagarraren uzta eta ez dago esaterik, beraz, noiz suertatuko den sagardoa egiten hasteko tenorea. Aurten, esaterako, aurreratu egin behar izan da gutzia «El Niño» deituriko fenomenoak eraginda, eta azarorako hasiak ziren egileak sagardoa produzitzen. Egingdako kalkuluen arabera, otsaila amaitu aurretik, edo martxoaren hasierarako beranduen, prest izango da, hortaz, aurtengo sagardoa.



ARTXIBOKOA

Hala ere, eta arestian aipatu bezala, sagardotegiak prest izango dira urtarrilaren amaierarako, iazko sagardoaz beterik baitaude oraindik kupelak. Izan ere, horretarako, urte osoan zehar sagardoa botiletan sartu, sagardotegia bera mantendu eta gehiagorako ematen baitu produkzioak. Zentzu horretan, azpimarratu beharra dago, Bizkaiko sagardoaz ari garelarik, bertoko sagarrez egina dela eta ez kanpotik ekarritakoaz.

Orain arte hiru izan dira herrialde honetan sagardo propioa eskaini duten sagardotegiak.

Zornotzan daude horietako bi, «Ibarra» eta «Usarte» sagardotegiak, hain zuzen, eta markinarra dugu hirugarrena, «Axpe» izenekoa.

Aurten laugarren kide bat gehituko zaio koadrilari, Lea Artibai aldean «Laka» sagardotegia zabaldu behar baitute. •

## Para disfrutar de la sidra en Bizkaia, llámanos

■ **Aurreko Baserria Sagardoa**  
José Martín Iturraspe Okamika  
C° Aurrekoa  
48289 MENDEXA  
Tel.: 684 22 83

■ **Etxebarría Sagardoa**  
José Etxebarria Urrutia  
C° Txone-Barri, B° Igartua  
48110 GATIKA  
Tel.: 674 20 10

■ **Sidra Garape**  
Miguel Ángel García Jiménez  
B° El Seel  
48190 SOPUERTA  
Tel.: 483 18 67

■ **Laneko Sagardoa**  
Okamika Auzoa  
48289 GIZABURUAGA  
Tel.: 684 22 11

■ **Artabillako Sagardoa**  
Luis M° Bikandi Biritxinaga  
c/ Artabilla, 2° A  
48200 DURANGO  
Tel.: 681 65 19

■ **Axpe Sagardoa**  
José Antonio Bilbao Ibarlucea  
C° Axpe  
48270 MARKINA-XEMEIN  
Tel.: 616 82 85

■ **Sebastianeko Sagardoa**  
Antón Aresti Eiguren  
C° Sebastianekua  
48289 MENDEXA  
Tel.: 684 25 42

■ **Laka-Erdi Sagardoa**  
Juan Amallobieta Arriola  
C° Laka-Erdi, B° Milloi n° 26  
48710 BERRIATUA  
Tel.: 613 91 78

■ **Kandi Sagardoa**  
Izaskun Jaio Insunza  
C° Ameztebarri, B° Ugarte n° 40  
48392 MUXIKA  
Tel.: 625 80 40

■ **Alleri-Zar Sagardoa**  
Iciar Urresti Arano  
C° Alleri,  
48710 BERRIATUA  
Tel.: 683 22 93

■ **Urrutia Sagardoa**  
Concepción Garmendia  
C° Beko-Etxea  
48100 MUNGIA  
Tel.: 674 14 46

■ **Amezketta Sagardoa**  
Charo Larrinaga Jaio  
C° Amezketta, B° Pilastra  
48215 IURRETA  
Tel.: 631 38 00

■ **Uxarte Sagardotegia**  
Jose Antonio Zamaioa  
B° Montorra n° 6  
48340 AMOREBIETA  
Tel. 630 88 15

*Bizkaikoa, noski*

**Ezberdintasuna bihotzean dago**

